

EHUN METRO

Ramon Saizarbitoria



n a r r a t i b a •

ere in

EHUN METRO

Narratiba, 124

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2020ko maiatzean

Edizio lana:
Garazi Ugalde

Azalaren diseinua:
Iturri

Maketazioa:
Erein

© Ramon Saizarbitoria

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-507-1



L. G.: D 368-2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.
Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Ramon Saizarbitoria

EHUN METRO

2020AN EGUNERATUTAKO EDIZIOA



EHUN METROrako SARBIDEA 2020an

60ko eta 70eko urteetako euskal irakurleak militanteak ziren neurri handi batean, euskal kulturaren militanteak. Euskara Batuaren eta euskal kulturaren berpizte eta eraberritze konprometitu horretan lirikak hartzen zuen erakusleihoaren lekurik preziatuena, hizkuntzaren eta kulturaren esparrutik idatzitako saiakerak jarraian zituela. Nobela baino poesia eta saiakera gehiago argitaratu zen urte haietan. Nobelarik, apenas argitaratu zen. Txillardegiren nobelak alde batera utzita, ezer gutxi. *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) nobelaren eta *Elsa Scheelenen* (1969) arteko urteetan euskal mundua sekularizazio prozesu batean murgildurik egon zen bete-betean, eta *Elsa Scheelenek* ere bildu zuen orduko gizarteak bizi izan zuen bilakaera horren igurtzirik. Orduko irakurlearentzat Leturia Jainkoaren bila zebilen pertsonaia gatazkatsua zen, onenean; edo zoro bat, besterik gabe, okerrenean. Eta, gaur egungo irakurle batentzat, lehen pertsonaia erdi-laiko eta kaletarra. Existenzialismoak kristautasuna izan zuen orpoz orpo gurean. Transzendentzia eta absolutu egarriak asezinak

ziren. Artean urruti geunden G. Lukacs-ek *Nobelaren teorian* idatzi zuen barne konbikzio hartatik, alegia, Jainkorik gabeko mundu bateko epopeia zela nobela. Lekutan zeuden gurean nobelak berezkoak zituen anbiguotasun eta ironiak: giza aferen funtsezko erlatibotasun sakona eta anbiguotasunekiko tolerantzia. Urte haietako euskal mundua ezaugarritzen zuen gakoetako bat horixe baitzen, ironiaren falta. Ironia zen asignatura gainditu gabea. Garai hartan, literaturaren autonomia gutxi batzuen errebindikazioa zen. Horren adierazle ziren urte haietako euskal literaturaren rankingaren berri ematen zuten panoramikak; Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* eta *Ehun metro* nobelen kalitatea ez zen nahikoa nonbait ranking horietan aurreneko postuetan egoteko, postu horiek poeta, hizkuntzalari eta saiogileen eskuetan zeuden. Poesia lehengaia izaten da beti hizkuntza eta kulturaren berreskuratze prozesuetan. Nobela modernoak, ordea, non eta ez den nobela liriko edo epikoa, denbora behar du beratzen, tradizio burgesaren kultura eta moralala bere konplexutasun anbiguoan bereganatu eta pausatzen. Nobelarako finezia ez zen gure ondare nagusia.

Ehun metro nobela 1976an argitaratu zen, nahiz eta 1974rako amaituta egon. Franco diktadorea 1975ean hil zen, baina 1976an argia ikusi zuen nobelaren lehen edizioak ez zuen artean indarrean zegoen zentsura legerik gainditu, eta, edizioa bahitu eta liburu-dendetatik erretiratzearekin batera, egilea bera ere prozesatu eta epaitua izan zen. Urte berean, ordea, zentsura-legea desagertzearekin batera, nobela liburu-dendetara itzuli zen. Liburuaren argitze bihurriaren

inguruko gorabehera juridiko-polizialari esker, nobelak halako balio erantsi politiko bat bereganatu zuen, antifrankista eta konprometitu «pedigri» bat. Gauzak horrela, ez da zaila asmatzen giro sozio-politikoak berak zenbateraino baldintzatu zuen nobelak izan zuen harrera. Bai, katramila horrek guztiak nobelaren aldeko jarrera positiboa erraztu zuen. Hala ere, ez dezagun pentsa gaur egungo parametroetan, non belaunaldi gazteek normaltasunez irakurtzen dituzten euskaraz idatzitako nobelak eskoletan. Hori beranduago iritsi zen, 1982tik aurrera, Elebitasun legea eta Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza eskumenei esker.

Gatozen, baina, testuinguru historiko urduri hartatik nobelaren esparrura. *Egunero hasten delako* nobelan ageri ziren giro, pertsonaia eta arnasa modernoak ziren argitaratu zen urtean, 1969an; baina, batez ere, kontatzeko modua zen oso rik berria. Euskal literaturak ez zuen ordura arte tamaina horretako estilo moderno ironiatsurik ezagutzen. Ikuspegi hori areagotu egin zen *Ehun metro* nobelarekin. Behin eta berriz aipatu dira nobelaren arkitektura, kontakizunean erabilitako teknika, baliabide eta estrategia aberatsak: ikuspuntu narratiboen txandatzea; denborazko planoen konbinaketa; egunkari, irrati eta gida turistikoak baliatuz nobelaren tramari gehitutako testu collageak; kaleko jendearen ibilera eta solasak; kaleko iragarki edo euskara/gazteleraren eta, neurri xumeagoan, frantsez/ingelesaren erabilera, kantuetan ere bai. Eta hori guztia argumentu (edo fabula) xume baten euskarri:

poliziarengandik ihesi doan aktibista batek zerraldo erori bitartean egindako ehun metroren kontaketa. Metro horietan, polizien tiro eta jazarpenari ihesi, bere bizitzako pasadizo batzuk ekarriko ditu oroimenera protagonistak (haurtzaroa aitarekin, maitasuna Michelerekin, klandestinitatea, erbeste eta organizazioa Manuelekin, eta aitaren heriotza), hain justu lasterketaren kontingentzia fisiologiko berehalakoenak (ibilera otzana, lepoko kateko giltza, odolaren berotasun edo malkoak) konjuratuta joango dira txertatzen nobelan. Amaitzeko, aipa ditzadan, nobelako kapitulu guztietan agertzen diren beste bi sekuentzia nagusi: fraide-ikastetxe bateko haurraren pasadizoak eta peripezia osoaren testigu izan den gazteari poliziak egiten dion itaunketa.

Narraziogintza konbentzionaletik begiratu, baten batek pentsa lezake ea ezinbestekoa ote zuen nobelak hainbestearainoko erakustaldi formalik. Bere eraikuntzan dago, ordea, nobelaren gakoa, hortxe kontakizunaren efikaziaren sekretua. Izan ere, collage teknikaren bitartez «gauzak» beren biluztasunean eta soiltasunean agertzen zaizkigu. Fenomenologikoki hitz eginez, esango genuke gauzak berak, gertakari berak direla mintzatzen direnak beren agertze hutsean, ezaxola, intentzionalitate narratibotik aske. Kontaketa narratibo konbentzionala parentesi artean jarri eta utzi solasa, egunkarietako albiste edo kaleko jendearen joan-etorri arruntak bridarik gabe, ohiko kontzientziaren narratibatik aske jiratzen. Utzi «errealitatea»ri (nobelako «materiari») narratzailearen bitartekaritarik gabe testuratzten.

Hala ere, ez gaitezen engaina, ezen nobela hau geruza ugariz dago eraikia, eta kanpoalde hotz eta distantetik (narratzailearen neutraltasun biluzitik) hiru minuturen bueltan zerraldo eroriko den militantearen barne mundu afektiboki berora izugarria da dagoen modulazio narratiboa. Hiltzera doan militantearengan fokalizatuz, hirugarren pertsonatik bigarrenera tartekatuz joango da narratzailea, haren gertutasun fisiologiko eta animikoa (sentsazio, gogorapen eta pentsamenduak) irakurleari eskainiz. Alegia, nobelako konplexutasun formalak edukia du xede: gehiegi kontatzearen gainera efektu iradokitzailea lehenesten da. Zinema eta nobela modernoan baliabide teknikoak ezagutzailerik, egileak nobelako istorioa (fabula), alegia, ehun metro tragiko horien efektua indartzeko, areagotzeko, anplifikatzeko erabiliko ditu estrategia horiek guztiak: hiltzera doan iheslariaren patua hunkigarriagoa bihurtzeko. Horren zerbitzura dago arkitektura formal guztia. Azken batean, Flaubertek esan zuen moduan, Jainkoa unibertsoan legez egon behar du egileak bere obran: alde guztietan presente, baina inon ere ikusten ez. Eta asmatu egin zuen Saizarbitoriak nobelako ahaleginean, ze inoiz esan ohi den moduan, testuak «funtzionatu» egiten du, nobelak hunkitu egiten gaituelako.

Nobelako lehen kapitulutik dakigu galtzaile baten aurrean gaudela, eta idiak hiltegiara nola, iheslaria (Jose) ere ohi-tuta zegoela autoritatearen aurrean (fraideen ikastetxean edo aitaren aurrean) otzan burua makurtzen. Oraingoan, baina, ez da makurtuko autoritatearen aurrean; alderantziz, arma botatzeko poliziaren aginduari desafiatuz, armari eutsi egingo

dio («askatasunaren, indarraren, boterearen sinbolo» horri). Eta iheslariak berak aukeratutako taberna itxi bateko terrazan eserita dagoen lekuko anonimoarengana bideratuko ditu urratsak. Lekuko hori gaztea da, bizarra du eta, mahai gaineko liburuak ikusita, ikaslea edo da (tipoaren «ile luzeak, bizarrak, tabardo berdeak, jite osoak hire konfiantza merezi dik»). Huraxe aukeratu du, gero eta barnerago susmatzen duen heriotzaren zafraldiekin batera, helduleku, eta sakrifizio erritual baten aurrean bageunde bezala, testigu harixe eskainiko dio bizitza ofrendan. Idiak eta arkume otzanak hiltzaira nola, halaxe doa iheslaria ere, bere «bizitzaren sakrifizioaren zain, jainko bat bezala eserita zain» duen tipoarengana. Ehun metroko lasterketako gertalekuan, garai batean, zezenketak egiten ziren; hara hor, sinbolikoki iradokituta, iheslariaren patua, hiri turistiko (begi) indiferentearen bihotzean plazaratutako ikuskizuna.

J. Kosma eta J. Prévert-en abestian (*Chanson dans le sang*) egiten diren galderak («Nora doa gainezka egindako odol hori?») eta erantzunak («eta lurrari zer?! Lurral/ jirabirari») behin eta berriz errepikatzen dira liburuan barrena, autoren implizituaren galderari inguru eta kaleko atzera-aurrera ezaxolatiak entzungor egingo balio bezala. Abestiak *leitmotiv* gisa funtzionatzen du, eta melodia hori nobelaren sako-neko interpretaziorako zinezko diapaso bihurtzen da.

Sakrifizioa, kalbarioa, Jesukristo, Che... Zergatik eta zertarako hil modu antzu horretan. Idealismoa, erromantizismoa, errebeldia. Baina, ironikoa, baita ere, azken metroetan arnasari buelta eman ezinean dabilen iheslariaren eta

haren testigu paralizatuaren arteko harremana ere. Biak daude, iheslaria eta lekukoa, maiz bizitza bera ere zaletua den harreman ironiko itsu batean giltzatuta. Michèle Manassé-k oparitutako giltza erori zaio eskuetatik bizitzako azken metroetan. Bere iragan eta bizi muina galtzen du giltzarekin; objektu preziatu horrek iheslariaren iraganeko oroimen gozoa gordetzen zuen. Baita, nonbait, lekukoarena ere. Alegia, gure sentipen eta konbikzio sendoenak ere haizeak desegin eta badaramatza.

Galtzaile baten historia da nobelarena, ez soilik hil egiten dutelako, baizik eta hiltzeko moduarengatik ere bai, onartuz bezala bere patua, erremediorik gabeko halabeharraren aurrean belaunikatuz. Joseren (iheslariaren) izaerari buruzko zertzeladarik apenas ageri den nobelan; eta baten bat narbarmentzekotan, Manuel komandokidearengana erakutsi zuen jaidura tolerante eta humanoa da. Pertsona ulerbera eta humanoa agertzen da iheslaria iraganeko pasadizo horretan.

Nobelan bi mundu agertzen zaizkigu, euskaraz eta gaztelaniaz mintzatzen direnak. Jose familia euskaldun batetik zetorren, ez soilik hizkuntza galdu ez zuena; gainera familia nazionalista zuen, gerra galdutakoa. Etxeko, familiako eta intimitateko hizkuntza da *Ehun metron* euskara; eta gaztelania, berriz, kaleko hizkuntza, eskolan, polizia etxean, administrazioan, komunikabideetan. Bere haurtzaroan eta, baita gaztaroan ere, aitak ordezkatzan zuen kultura nazionalistatik edan zuen Josek. Aitaren mundua eta frankismoarena erabat

dira kontrajarriak. Batean, garapen esparrua bizitza pribatura zegoen erretiratua; esfera publikoa, berriz, erregimenarena zen. Erregimenaren zutabe irmoak ziren hizkuntza, bandera, eskola, komunikabideak eta polizia, Eliza frankistarekin batera. «Plaza 18 de Julio» zutabetsu eta errektangularrak ordezkatzeko lukeen irmotasunaren pareko. Plaza horretan txer gertatzen da aktibistaren heriotza. Frankismoaren ikur, altxamenduaren egun handiari eskainitako gorazarrea. Diktadura frankistaren sistema egonkortu eta erabateko horri jartzeko asmoz ekin zion ETAk borroka armatuari.

Errazegia litzateke dilema etikoa saihestea bosgarren mandamenduan babestuz edo Kant-en inperatibo kategoriakoaren formulazio ahistoriko eta abstraktuenean. Baina dimentsio historiko konkretuetan erabakitzen da noraino diren zilegi errespetatu beharreko marko juridiko-legalak. Francoren botapean itota zeuden gizakiaren eskubide oinarritzkoenak: ez askatasunik ez justiziarik. Beldurra eta isiltasuna; ezkutuka ibiltze horiek ez dira gizarte duin baten zumeak. Inor ez balitz hil, hobe; eta areago frankismorik ere ezagutu ez bagenu. Baina hori guztia gertatu egin zen, historia konkretu bati erantzunez gertatu ere.

Franco hil eta gero trantsizio bat egon zen, amnistia bat, hauteskundeak eta konstituzio bat, duintasun politikoaren lehen kimuen ernatzea ekarri zuen aldaketa demokratikoa, ezinbestean inperfektua. Euskadin, gerraosteko lehen gobernu autonomoa eratu zen, eta eskumen askoren kargua bereganatzen joango zen. «Plaza 18 de Julio» zoritxarrekoa «Konstituzio plaza» bihurtu zen berriz, gerra aurrean zuen

izena berreskuratuz. Gauzak aldatzen ari ziren eta frankismoaren botapean ezinezko ziren arnasbideak, askatasun esparruak, zabalduz joan ziren. Baina, hau guztia, nobela argitaratu eta handik urte gutxira gertatu zen; beraz, beste baterako utziko dugu.

Inoiz aipatu izan da *Ehun metro* nobela laburregia edo eskematikoegia ez ote den. Beste galtzaile baten (Daniel Zabalegiren) historia kontagai duen *Hamaika pauso* litzateke, onenean, susmo hari emandako erantzunik bikainena. Era guztietara, *Ehun metro* nobelak ohorezko lekua betetzen du Euskal literaturaren historian.

IÑAKI ALDEKOA
2020ko martxoan

LEHEN ARGITALPENAREN HITZAURREA*

aiton puzkartiaren oroitzapen biguna, gurasoen kaskarrekoak, mendian lahar artean itotzen zen loretxoa, euskara karlismoarekin berdintzen zuen fraide esku-sartzailearen gorroto eta higuin kolektiboa, gizontzeko presak (non dira ostikoka xehatu behar genituen haiek), zergatik jakin gabe lotsatu eta sutzen gintuzten etorrioneapaestelao guztiak, osaba zaharrari nahitaez euskaraz hitz egin beharraren larritasuna

gerrako kontu inoiz aipatu gabeen jakin-mina, gurasoen euskara bai aberatsa, gitarra jotzen ikasten eta munduko poemarik onenak izkribatzen hastea, geure lehen bilerak kristautasun berri eta guztiz iraultzaile baten bila, patillak eta bi-boteak loratzen uztea, anaia zaharraren bibliotekan Garoa eta Pernando Amezketarra irakurtzen saiatzea, bai baino euskaldunak badira ligatzeko hobe, ez dira hain txatxuak

* Argitalpen honek *Ehun metro* nobelak bere lehen argitalpenerako Koldo Izagirrek idatzi zuen hitzaurreari eutsi dio. Urte haiek esperimentalismo (eta abangoardia) urteak ere izan ziren, eta hitzaurregilearen idazketak orduko joerari eutsi zion (Editorearen oharra, 2020an).

eta oraindik, Ramon, egonen da porque le has quitado la ocasión gorrotatuko zaituenik, que quieres aprovecharte de, badakizu dásns lá rúe eta antzekoak, harrokeria azken finen inpotenziaren ondorioa baita, euskal literatura osoa irakurtzearen planing-a egina genuenok nola estimatu genuen egunero hasten delako lehen euskal nobela modernoa diotenez eta ez al dira lotsatzen ni behintzat amorrazioak hartzen nau euskara goxoa, ederra, irakurgarri apaina, istorio polita eta liluragarria eta guk irabazi nahi dugun adjektiboa atormentatua da ez alegia adjektiboa bera dela atormentatua, adjektibotzat hartzen duten atormentatua hitzaz bataia gaitzatela edo bestela traketsa, narrasa, zarpaila, nahasia, gogorra eta orain konturatzen naiz inpotenziaz eta goian erran dudana txorrada dela baina nola izkriba nezake txorrada batzuek nahi luketen eran, euskaldunaren hortz-haginak rh-ak jota daude baina guk oraindik ez dugu plastikozkorik hautatu eta egia da papila gogoratzen dut antologiarena erran nizuela egia da ze arraio hala ere hau izenpetu ondotik ez dut egin ahal izanen agian apika

konturatu gabe, batere konturatu gabe saltsan sartua ikusten duzu zeure burua, hik kristona dakik gramatikaz eta gero Lafitteren adreilua apur bat sistematizaturik es ke kagatzen naiz adizu, ea asmatzen duzun zergatik kantatu nuen behin mendian gora lainoa pinudi beltzaren loa zuek guztiak madarikatuz Euskal Herritik banoa oso ahots ederrez nik ez dakit hainbeste adarrez eta andereñoak preparatzen eta orduan konturatzen zara non bizi zarenentz barka ezazu, nola duzu izena, a bai, liburua erosi behar al da, a bueno, nik, es

ke ez dut euskaraz libururik irakurri zergatik oso zaila egiten zait eta gainera ez dut denbora, egiaz eta begiaz diotsut pozik joanen nintzatekeela neu ere Nafarroako lurrik ezku-tuenean neure poeta faboritoak irakurtzera, eta bost axola, bihar bertan leher ledila zuen mundu petral hau

gero datorrena erran gabe doa, poesiak izkribatzen ditik erraten dute hor barna zuregatik, bai tipo arraro horietakoa, eta kontent arraro izateak halako amiantozko trajeaz jantzen baitzaitu ez duzu hainbeste gizontxo purtzil soportatu behar, murmuriozaleen abileziak ezagutzen dituzu ondoren, zeuk jakin baikoz enpaketatu eta konsignan jarri haute ikatz zakuek muelleetan dituzten txartel horietako batekin, ez natzaizu hasiko txartelak izaten duten klabeaz mintzatzen, zerako zeran zera zebilek, eta badakik, zerako zeratik beste

zerara pasa duk eta zera hura ere bai dirudienez, jakina zebilen jendilajearekin, orain esplikatzen nauk zerakoa bai gizona noski argi zegok: txano gorritxo

noski, neurrira ez datorkion jakaz jantzitako jende gehiegitxo dakusagu bazter hauetan, zabalegiak dituzten presu-postuz, euskalduntasunaren eskusibaz jabetzen utzi diegu, eta zergatik ez dut behingoan erranen, trapezioan jarduteko kemenik ez duena ez dadila saia haren heriotzaren xehetasun guztiak masokismoz ikasten, bai hala erori omen huen ez horrela, ba al dakik azkena, no jodas, nik ez ditut hildako lagunen parte medikoak gordetzen, kronikarik errekortatzen, ez ez, ez dut negarrik eginen aitaren edo anaiaren edo emaztearen eskela irakurtzean, ez dakit irakurriko dudarik ere, ez

dut irratia piztuko, nolako tristezia epel ederra zeuen hileta ikustea, imajinatzea, dastatzea

batzuek baztertua eta besteek arbuiatua aurkitzen zara, eta zenbait memento gaizto ahuletan hobe dela horrela sinetsi nahi duzu sinetsi nahi duzula sinetsi nahi duzu sinetsi nahi duzula sinetsi nahi duzula sinetsi nahi duzu

orduan egin dezakezun gauzarik nobleena isiltzea da eta amorrua baretzeko tristura antzuak gainditzeko izkriba ezazu, izkriba iezaguzu, izkriba gaitzazu

aurreraka, atzeraka, zeharka, kanpora, barrurantz, hodeietan, izarretan, noizbait isilka irakurritako poeman, okertutako ametsean, bihotz abstraktuen enboloak apurtuz, fotografia zaharren horixka nostalgikoan, haizea ukabilean bilduz, neur ezazu ehun metroetatik azken ehun metroetatik bakoitza eta egin balantzea

RAMON SAIZARBITORIA (1944).

Egunero hasten delako (1969), lehen euskal nobela modernoa, hitzaren zentzurik osoenean. Haren aurkikunde formalak, teknikeria huts baino areago, gaurko euskal nobelak beharrezko duen eraberri-tzearen oinarri dira.

ezerk ez zaitu lur madarikatu honetara lotzen, eta
hala ere

eta ez diozu zeure buruari eroaldi hartan izkribatzekoa
serioski hartu izana barkatuko, baina zeure mendekua kon-
plitua duzu

guk dugu kulpa

baina oraindik egonen dira nobela hau gustura iraku-
rriko dutenak, eta bi aldiz segidan irakurriko duten ni be-
zalako idiotak

KOLDO IZAGIRRE URREAGA

Pasaia, urtarrilak 27

EHUN METRO

BAT

Haurrak, gabardina erantzi ondoren, mantal beltza hartzen du kakotik. Puppitre-tapa hotsa, barre eta oihuak. Zalaparta, murmurio bihurtzen da atea irekitzen denean; isiltasun, berriz, ixterakoan. Patio atzean, eguzkia laino artean ezkutatu da.

BOZ 1.– Bueno. ¿Dónde está ese joven?

.....

BOZ 1.– Siéntese, siéntese (pausa). Vamos a ver (pausa handi bat). Me dicen que es usted estudiante.

BOZ 2.– Sí.

BOZ 2.– Estudiante de (pausa) filosofía.

BOZ 3.– Filosofía y Letras.

BOZ 1.– Sí, Filosofía y Letras (pausa laburra). Tercero de Filosofía y Letras.

.....

BOZ 1.– ¿Aburrido de los libros?

BOZ 2.– Sí, bastante.

BOZ 1.– Pero hay cosas peores, ¿eh?

BOZ 2.– Sí, sí, claro.

BOZ 3.– Por ejemplo, el pico.

BOZ 2.– Desde luego.

Ate hotsa; kanpotik 4ren boza entzuten da.

BOZ 4.– Díez. ¿Está Díez? (pausa laburra). Díez, que te llaman de abajo.

BOZ 1.– Que ahora voy. En cuanto termine con este señor, bajo.

Ate hotsa ixten. Isilunea, gero.

BOZ 1.– Bueno, vamos a darnos prisa que tengo que irme.

BOZ 5.– ¿Fuma?

BOZ 2.– No, no. Gracias.

BOZ 3.– Pásame a mí uno. Qué, ¿miedo al cáncer?

BOZ 2.– No, no. Quiero decir que ahora no quiero. Pero sí que fumo. Quiero decir que ahora no me apetece.

BOZ 1.– Bien...

Pospolo pizte hotsa entzuten da behin eta berriz, 5ek, zigarreta ezpainetan, ziurtasun osoz hitz egiten duen birtartean.

BOZ 5.– ¿No hace usted deporte?

BOZ 2.– ¿Deporte? No, no, deporte no hago (pausa laburra). Bueno, voy al monte y así...

BOZ 1.– Bien (pausa). En realidad, sólo queremos saber una cosa (pausa). Vamos a ver: ¿qué hacía usted, sentado en la terraza de un bar cerrado, a las ocho de la mañana?

AYER, HACIA LAS OCHO DE LA MAÑANA, CUANDO UN COCHE PATRULLA DE LA POLICÍA REALIZABA SU HABITUAL SERVICIO DE VIGI- LANCIA

Mina duk bularrean. Arnasaren erritmoa apaldu, geldotu, luzatu nahi huke, beso-zangoen mugimenduak ezartzen diaten erritmoaren kontrolpetik libratu, askatu. Zangoen mar-txa edo erritmoa gutxitu gabe, arnasa hartzearena makaldu. Airea hotza duk eta eztarria erretzen dik, baina irrikaz iren-ten duk bafadaka, birikek eskatzen duten erritmo gero eta az-karragoan. Ito beharrean hago. Iraupen luzeko korrikalaria haiz eta badakik airea kanporatzea dela arnasketaren gakoa, ahalegin aktibo handiagoa eskatzen duen aldia, eta horretan jartzen duk arreta, ezpainak aurreratuz ahotik airea indarrez botatzeko besoak mugitzeari utzi gabe, eskuak solte, estutu gabe, sorbalden pareraino aurreratuz igotzean eta atzera era-gitean aldaketaraino jaitsiz, hartara, oinkadaren hedadurari eusteko.

Argi sumatzen dituk atzetik dituanen pausoak. Ez dakik zenbat diren, baina lau boz bederen bereizi dituk «ALTO A LA POLICÍA, ALTO, ALTO O DISPARO» esaten.

Badakik ez duala ihes egiterik, plazatik ateratzea lortuko bahu ere polizia gehiago agertuko liratekeela parez pare eta bidea itxiko liaketela. Alferrik duk burua bueltatzea, eta ez duk bueltatzen. Ez duk ikusi ere egin nahi. Sen hutsa duk hiregan errealitatea saihestea, inguratzen hauen arriskuaren

berri izan nahi ez hori; begiak ixtea. Egia esan, bizitzan arriskuak neurtu izan bahitu, ez hituzkeen orain arte egin dituanetatik erdiak ere egingo. «Ekintzetarako beharrezkoa duk erokeria gramo bat», esan ohi huen.

Beraz, ez duk burua bueltatzen. Iheslaria burua bueltatu gabe doa lasterka, plazaren beste aldera, «Zamudio»ren terrazarantz, atzekoak abaniko forman irekitzen diren bitartean, arkupetik doazenek nabarmen gehiago aurreratzen dutelarik kanpotik doazenek baino. Irekitze horrek behartzen du beharbada iheslaria, arkupetik aurreratuz doazenengandik aldendu nahirik, parez pare duen irtenbidea galduz, diagonalean korri egitera.

Dударик gabe, azken horiek, ezkerretik korrika ia bere parean arkupetik doazenek, alegia, iheslaria plazan inguratzeko asmoa dute, Iñigo kalerako balizko irteera itxiz. Iheslariak eskuinerantz jarraituko balu, Arrandegi kaleko pasabidea ere itxi liezaiokete, beste aldean, kasu horretan lasterka egin beharreko distantzia –hau da, arkupetik atera gabe eta, beraz, angelu zuzenean egin beharrekoa– handiagoa litzateke zuzenean diagonalean eginez baino. Izan ere, arkupetik lasterka egiteak badu abantailarik; nagusiki, lurra harrizkoa dela, lehor edo lehor samar dagoela, nolnahi ere, kanpo aldekoa baino lehorrago, hezetasunagatik distiratsu eta oso labain baitago hura, azken egunetan etengabe egin duen ziri-miriaren ondorioz, eta ez da huskeria, erlatiboa izanagatik ere, zutabeek tiroketa posible batean eman dezaketen babesa. Horrek esan nahi du arkupetik doazen poliziaek lasaia egin dezaketela korri, kanpoan doazen kideek baino.

Zutabeen babesean korrika ari denetariko bat bi edo hiru metroz aurreratu da, abanikoa ixten hasi da, eta argi dago «Zamudio» parera heltzerako –hartu duen norabidean ehunen bat metro gutxi gorabehera–, inguratuta egongo dela gaztea.

Hi inguratzen ari dituk. Ez duk, beraz, burua atzera bueltatu beharrik, aski duk zeharka ezkerraldera begiratu, atzetik dituan bi behintzat hire parera iritsiak direla eta aurreratu ere egin hautela ikusteko; hortaz, eskuinerago egiten duk, orain etsi-etsian besoei eraginez, arnasketaren eta zangoen gaineko inolako kontrolik gabe.

Badakik «Zamudio» ez dela irtenbide bat, baina bertaraino iritsi nahi duk, hori lortzearekin jazarleengandik libratuko haizen uste sendoa bahu bezala. Gertatu zaik inoiz, inguru honetantxe politiko-sozialekoak hi zelatatzen ari zirela jakin, eta Boulevardeko taberna bateraino ekarri hituela, barran zerbait eskatu eta komunera joatekoa egin ondoren, atzeko atetik atera eta bi kale iparralderago Esterlinesen ateratzeko, horrenbeste establezimenduk bi kaletara ematen duten atea dituztela baliatuta. Ez duk «Zamudio»ren kasua, eta, gainera, aurrealdean mahai pare bat eta dagozkien aulkiak baditu ere, itxia dik pertsiara. Nolanahi ere, erabat hutsala duk irekita edo itxita egotea, ez baituk ihes egiten saiatzeko asmorik, ezingo huke inola ere. Adi-adi begira daukaan tipoaren aurrean erori nahi duk justu; aulki metalikoetako batean eserita zegok, haren besoei helduta, zurbil, hi baino are zurbilago, bere begiz ikusten ari den eszenak izuturik. Gaztea duk aulkiaren besoei esku biekin helduta jaikitza

ausartzen ez den gizona. Estudiantea izango duk behar-bada; hala adierazten ditek eserita dagoen mahaiaren gaineko liburuak eta karpetak, eta haren ile luzeak, bizarrak, tabardo berdeak, jite osoak hire konfiantza merezi dik. Ez duk aukera handirik eta norbaiten presentzia beharrezkoa zaik, hire heriotzaren lekuko izanik hari zentzua emateko. Laurogeita hamabost, laurogeita hamalau, laurogeita hamahiru metrok bereizten haute harengandik, gehiegi gorputzean bala bat daramaala egiteko, baina korrika segitzen duk arnasa hartzearen erritmoa zangoenetik libratu nahian, eskuinerantz zertxobait okertua azken hori, diagonalari eutsi, eta hire ezkerreko arkupetik, alboan, hurrean, hurbil, ondoan ia, ez hamar metro baino urrunago, «PARA O TE ASO, CABRÓN» oihu egiten dianarengandik aldenduz.

Korrika ari haiz baina, izatez, otzan hoa, ardiak hiltegi-rako bidean doazen bezala, haurtzaroan erregela jasotzen zuen fraidearengana edo zigorra agintzen zian aitarengana joaten hintzen bezala. Joaten haizen, hoan, doan bezala. Batorren haurra bezala. Zortzi, bederatzi, hamar urte izango ditu eta Kontxan dago, Alderdi Ederren, aitaren ondoan eserita tamarindo baten azpian, hondartzara ematen duen lehendabiziko arrapalaren pareko banku batean, harresiaren kontra burrunban lehertzen diren olatuei iskin eginez jolastzen diren haurrei begira. Aitarengana altxatzen du burua, aita haurrarengana makurtzen du belarri bat; berak ere arrapalara joan nahi du, beste haurren moduan olatuekin jolastera. Baimena lortu, eta arrapalarantz doala, burua bueltatzen du bi aldiz, aita «kontuz ibili» esaten diola entzuteko.

Olatuek kadentzia erregular batez egiten dute aurrera distantzia jakin batera heldu arte, baina batzuek zalantza egiten dute, geratu egiten dira, bolumena galtzen dute, hustuko balira bezala, eta desagertu egiten dira. Zain egon beharra dago. Haurrak baranda busti, labain, despintatu, herdoil-duari heltzen dio. Beste olatu batzuek, aurrekoak irentsi ondoren, bolumena eta abiadura hartzen dituzte ia lehertu ere egin gabe. «Hori ona da», oihukatzen dute umeez. Iraila edo urria behar du izan, marea biziak baitira dagoeneko, baina haurrek sandaliak edo zapatilak daramatzate oraindik. Irailean batez ere, baina baita urrian ere, haurrak olatuekin jolastu ohi dira Kontxako lehendabiziko arrapalan, ahalik eta denbora gehiena irautera barandari helduta, lehorrik eta ihes egin gabe, ura igotzen denean airean zintzilik eutsiz bat, bi, hiru segundoz, olatuen masaren eta indarraren arabera denbora tarte aldakor batez. Abilenak, trebeenak, bizenak, bizkorrenak, ez dira bustitzen batzuetan, eta beste batzuetan busti egiten dira; ahulenak eta koldarrenak ez dira bustitzen sekula. Haurrak baranda busti, labain, despintatu, herdoil-duari heltzen dio. Beste olatu bat dator, haziz doa, itzulinguruak eginez, kiribilduz, horma jotzen du. Bat, bi, hiru, lau segundoz hedatzen da. Haurrak bustiak sentitzen ditu oinak sandalia barneetan. Galtzaile igotzen du arrapala, burua makur. Belaunetatik behera busti da, busti zen, busti hintzen bakarrik, baina sandaliak blai-blai hituen eta ordurako bahekien kresala larruaren hondamena dela. Aitak esan zian behin. Eta ordurako ere bahekien zenbat kostatzen zen sandalia pare bat. Aitak aulkian eserita segitzen zian, tamarizpean. Egunkaria

irakurtzen edo berriketan edo jendea pasieran ikusten. Sei edo hamarren bat metrora gelditu hintzen, hire presentziaz konturatu zen arte. Irribarre batez agurtu hinduen –hi haren bihotza, kutuna, haren antz eta irudiko–: «Zer modu? Ondo? Dibertitzen ari haiz?», maitasunez, harrotasunez beteriko irribarre zabalez. Metro pare bat aurrera egin, eta gelditu egin hintzen berriz ere, zapuztera zihoan momentu hura gorde, luzatu nahian.

–Zer modu? Ondo? Dibertitzen ari haiz?

Aitaren maitasun seinaleak jasotzeko, antzemateko, igartzeko, ulertzeko sentsibilitate berezia huen. Oso ondo konprenitzen huen hitaz harro zegoela eta maite hinduela, konprenitzen huen bezala sandaliak hondatzea gaizki zegoela eta aita, hartaz jabetzean, haserretu egingo zela. Ez huen momentu hura zapuztu nahi, aita hain baitzegoen zoriontsu eta pozik hi ikustearekin, baina, era berean, ez hituen luzatu nahi espero huen zigorraren edo errietaren neurriaz eta izaeraz hituen kezkek. Beraz, luzamenduak utzi, eta oinez hasi haiz berriro, pauso-pausoka, aitaren aurpegia aztertuz lehen ekaitz zantzua noiz agertuko, eta, pauso batera hagoela, burua makurtzen duk, haren boz haserrea entzuteko beldurrez. Aitak ere burua makurtzen dik. Biek makurtu dituzue buruak. Bistakoa duk ikusi dizkiala urez eta kresalez distiratsu ageri diren zangoak, eta sandalia bustiak. Oso ondo sentitu duk –erreko balik bezala– haren begiek ikuskatutako azal zentimetro bakoitza. Irribarrea borratu, estali, erori egiten zaiok. Esku erraldoi bat zabaltzen dik hire aurpegi aurrean. Urrutiratzen ikusten duk baina ez hurreratzen. «Zertan ibili

haiz?» Burrumba bat entzuten, sentitzen duk, geroz eta zorrotzagoa bihurtzen dena intentsitatea galdu ahala, erabat desagertu gabe. Garuna zulatzen dik txistu zorrotz antzeko horrek, amaigabe, eta burua astintzen duk hartaz libratu nahian. Orobat libratu nahi duk ilea blaitu, kopetan behera irrist egin, eta begiak erretzen dizkian izerdiaz. Itxi egiten dituk momentu batez, eta, atzera irekitzean, hire ezkerralde-tik korrika doana ikus dezakek. Oihu egiten dik, ahoa asko zabalduz, baina hik ez duk deus ere entzuten, buru barnean jiraka ari zaian burrunba zorrotza besterik; burua zulatzen dik alderik alde. Ez duk ezer entzuten, baina atzetik ditua-nen pausoak sentitzen, sumatzen dituk gero eta gertuago, eta erritmoa biziagotzen saiatzen haiz, hortzak estutuz. Ezin duk.

Besoen mugimendua biziagotzea lortu duk soilik, lurra ostikoz jo, eta salto batez alboratzeko, ezkerretik doanak gelditzera egin eta bere besoak luzatzen dituenen, hain ondo ezagutzen duan Star Z-84aren bi kilo eta erdi pasatxoei tinko eutsiz.

TRAS UNA LARGA PERSECUCIÓN EN LA QUE EL FUGITIVO NO OBEDECIÓ LAS REITERADAS SEÑALES DE ALTO

Autoak, motoak, bizikletak. Oraindik loaren seinaleak kontserbatzen dituzten aurpegiak: goibelak, bizartsuak, bizarra

egin berritan lozios hezeak, grabeak, betaurrekodunak, kopeta ilunekoak eta egun on esateko irekitzen diren ezpain estukoak. Kafe kikaretan koilareei eragiten dieten eskuak. Esku zabalak, beltzaranak, iletsuak, luzeak, zain urdinez jositako esku zuriak, hasperen bat estaltzeko ahoratzen direnak.

–Desde luego huevos no les faltan.

–¿A qué hora fue?

–Por la mañana.

–Ya jode. A la mañana yo estaba en la plaza.

–Pues por la mañana temprano.

–Es que meterse aquí, es meterse en una ratonera.

–Podía haber entrado en un portal. Y salir por el tejado.

–Hitz egitea erraza duk.

–Ez, ez. Potroena ez dik inork diskutitzen.

Xinaurriak dirudite grisez, marroiz, urdinez jantzitako zango gainetan. Egunkari postuetan pilatzen dira, doazenak datozenekin gurutzatu, topo egin, baztertu, presaka doazenek mantso doazenei bultza egiten diete. Batzuek, hiru-naka lerrokaturik dauden auto barrenetan erlojuei begiratzuz, azeleratzuz eta dezeleratzuz, haien motor hotzak berotzen dituzte.

Leihatila ireki eta «Deme La Voz» esaten du norbaitek.

–Nada, que se han cargado a uno.

–No jodas.

–Que se deja las vueltas, oiga.

Zerrenda griseko espaloi zuria, lauza hexagonalekoa. Oinak larruzko zapata dotoreetan, bota sendoetan, gomazko katiusketan sartuta doaz. Gelditu egin dira. Batzuek pausoa

markatzen jarraitzen dute beren lekuetan, hotza uxatzearren. «Por un San Sebastián más limpio». Semaforoa berde jarri da. Palankek lehen martxari heltzen diote eta, ihes-hodietatik gasolina errearen hodei beltz lodia isuriz, auto gorri, berde, zuri, beltz, kolore guztietakoak kalean gora abiatzen dira.

NUEVOS RUMORES SOBRE LA SALUD DE PABLO VI SE HABLA DE ABATIMIENTO Y PESIMISMO ANTE LA SITUACIÓN MUNDIAL

–Ez zekarrek ezer.

Egunkari bat lautan tolesturik, mahai gainean. SEREMOS FIEL FUERZAS ARMADAS. Egunkariak, hainbat material eta koloretako mahai gainetan. Zangoek orain egurrezko zoladurak, zementuzkoak, zoru moketatuak, lauzatuak zapaltzen dituzte, askotariko koloretakoak horiek ere, lurrean finkatutako makinen inguruan mugitzen dira.

–Hortxe, plazan kiskali zitean.

–Beti zegok zerbait. Eta hiri, zer pasatzen zaik?

–Ez diat begirik itxi erreuma zikin honekin.

Eraikin neoklasikoa. Leihoak. Sarrerako atea, eskailera zabal baten buruan. BIBLIOTECA MUNICIPAL. Plaza errekangular bat. Haur batzuk mantal beltzez jantziak, liburu, karpeta, zorro pilaren inguruan lurrean eseriak. Etxe zahar gristua. Balkoia. Balkoiko atearen goialdean ageri den zenbakia. 108. «La plaza rectangular que en pasados tiempos fue

el ágora y centro comercial social y festejero de la ciudad, ofrece la particularidad de que los dinteles de las puerta-ventanas de las fachadas de sus casas están correlativamente numerados en razón de la servidumbre a que estaban sujetos sus correspondientes balcones a servir de palco en la celebración de las corridas de toros...».